

Euskal AEko jaiotzak % 3,8 murriztu ziren 2019ko 4. hiruhilekoan

2019an zehar 15.400 jaiotza izan ziren, aurreko urtean baino % 4,3 gutxiago

2019ko laugarren hiruhilekoan 3.842 haur jaio ziren Euskal AEn, aurreko urteko epe berean baino % 3,8 gutxiago, Eustaten datuen arabera.

2019ko udazkenean Euskal AEn ama izan ziren emakumeen % 28,4 atzerritarrek ziren, 2018ko epe bereko % 26,6koa baino portzentaje handiagoa. Araba ehuneko horretatik gora kokatu zen, % 38,9ra iritsi baitzen, eta, ondoren, Gipuzkoa, % 29rekin; Bizkaian, berriz, nazionalitate espainiarrik ez zuten amak % 24,7 izan ziren.

Lurraldeka, Bizkaian % 2,7 hazi da jaiotzen kopurua, 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta, eta guztira 2.006 haur jaio dira. Araban, aldiz, 619 haur izan dira, % 6,1 gutxiago, eta Gipuzkoan, 1.217 jaiotza berrirekin, % 11,9koa izan da jaitsiera, betiere 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta.

Amen % 80k baino gehiagok 30 urtetik gora zituzten

Jaiotzak adinaren arabera banatuz, 35-39 urteko amen ehunekoa % 35,2koa da; beraz, talde hori da nagusi hiruhileko honetan eta, ondoren, 30-34 urteko amena, zeinen artean erditzeen % 34,5 gertatu baitziren. 25-29 urteko taldearen ekarpena % 12,7koa izan zen. 40 urtetik gorako amek (% 11) 25 urtetik beherakoak gainditu zituzten (% 6,6).

Amatasunaren adina ere aldatu egiten da nazionalitatea kontuan hartzen bada. Izan ere, atzerriko amen batez besteko adina 30,9 urtekoa izan zen, eta espainiar nazionalitatea dutenena, berriz, 34,5 urtekoa.

Ezkondutako amek izandako haurren ehunekoa % 45ekoa izan zen

2019ko laugarren hiruhilekoan ezkontzatik kanpo izandako jaiotzak guztizkoaren % 45 izan ziren, 2018ko epe berean erregistratutakoa baino ehuneko 0,4 puntu txikiagoa.

Jaiotza-ordenaren arabera, erdiak, 1.941 (% 50,5), lehen seme-alabak izan dira; 1.418 (% 36,9) berriro erditu diren amenak izan dira; hirugarren eta ondorengo seme-alabak 483 izan dira (% 12,6).

2019ko 4. hiruhilekoan izandako jaiotza guztietatik 1.334 urrian izan ziren, 1.289 azaroan eta 1.219 abenduan.

2019ko balantzea

2019. urte osoa hartuz gero, jaiotzen behin-behineko kopurua 15.400 izan zen, hau da, 690 (-% 4,3) gutxiago, 2018ko datuekin alderatuta. Beherakada hori hiru lurraldeetan

gertatu zen, baina bereziki nabarmena izan zen Gipuzkoan, % 6,2koa izan baitzen, 337 jaiotza gutxiagorekin; Araban % 4,4koa izan zen (119 jaiotza gutxiago), eta Bizkaian % 2,9koa (234 jaiotza gutxiago).

Bizirik jaioak, lurralde historiko, amaren adina, amaren egoera zibila, amaren nazionalitatea eta jaiotza-ordenaren arabera (1)

	Trimestre Actual		Aurreko hiruhilekoa		Aurreko urteko hiruh. bera	
	2019/IV		(2019/III)		(2018/IV)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	3.842	100,0	4.113	100,0	3.995	100,0
Araba / Álava	619	16,1	700	17,0	659	16,5
Bizkaia	2.006	52,2	2.012	48,9	1.954	48,9
Gipuzkoa	1.217	31,7	1.401	34,1	1.382	34,6
Amaren adina	3.842	100,0	4.113	100,0	3.995	100,0
≤ 24 urte	255	6,6	310	7,5	248	6,2
25 - 29 urte	489	12,7	543	13,2	500	12,5
30 - 34 urte	1.324	34,5	1.515	36,8	1.375	34,4
35 - 39 urte	1.351	35,2	1.346	32,7	1.421	35,6
≥ 40 urte	423	11,0	399	9,7	451	11,3
Amaren egoera zibila	3.842	100,0	4.113	100,0	3.995	100,0
Ezkondua	2.115	55,0	2.257	54,9	2.180	54,6
Ezkongabea	1.727	45,0	1.856	45,1	1.815	45,4
Amaren naziotasuna	3.842	100,0	4.113	100,0	3.995	100,0
Espainiarra	2.751	71,6	2.990	72,7	2.932	73,4
Atzeritarra	1.091	28,4	1.123	27,3	1.063	26,6
Jaiotza-hurrenkera	3.842	100,0	4.113	100,0	3.995	100,0
Lehenengoa	1.941	50,5	2.090	50,8	2.048	51,3
Bigarrena	1.418	36,9	1.498	36,4	1.485	37,2
Hirugarrena edo gehiago	483	12,6	525	12,8	462	11,6

(1) Oraingo eta aurreko hiruhilabeteko datuak behin-behinekoak dira

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62